

Iragankortasunaren dinamikaz zubereran: kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzak Maisterren *Jesü Kristen imitazionalean*

JEAN-BAPTISTE BATTITTU COYOS*

1. SARRERA: BALIOBIKO ADITZ BATZUEN BILAKAERA ZUBERERAN

Duela guti Jean-Louis Davant euskaltzain zuberotarrak Martin Maisterek, Ligiko erretoreak, 1757an zubereraz itzuli zuen *Jesü Kristen imitazionalearen* liburuaren edizio berria paratu du, oraingo euskal grafiara egokituz. Liburu hori interesarria da aldizkari honetan aurkeztu dudan ikerkertaren corporusa osatzeko¹, deitu ditudan zubereraren «kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzen» azterketa gehitzeko (kasu adierazpena, *case marking, marquage casuel*).

Baliobiko aditz horiek bi edo zenbaitetan hiru aditz-eraikuntza ezberdin badituzte gaur egun, ber adiera edukiz berriemaileen arabera, eraikuntza ho-

* IKER Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea – Baionako UMR 5478 (CNRS, Bordele 3, UPPA).

¹ Iku lehen bi artikuluak: Iragankortasunaren dinamikaz zubereran: kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzen ikerketaren lehen etapa, *FLV*, 2005, 100, 633-660 eta Iragankortasunaren dinamikaz zubereran, bigarren etapa barneko ekonomia, hizkuntza ukipena eta edo egileari buruzko ikus-molde berria?, *FLV*, 2007, 106: 401-417. Sortu dudan erreferentiazko corporusa testu-bilduma batez osatua da bereziki, oraingo ahozko testu batzuek eta galdegegi zabal batiko erantzunek burutzen dute. Aztertu ditudan testu gehienak euskarri elektronikoan ez daude.

riek denak erabilten ez baldin badituzte ere. Aditzaren arabera hiztun batzuek bi edo hiru eraikuntza horiek erabil ditzakete, besteek horietarik bat bakarrik. Adibidez: *behatiü «entzun»: Allande musikari behatzen da edo Allandek musika behatzen dü, nausitiü «nagusitu»: Maule Garaziri nausitiü da/zaio edo Maulek Garazi nausitiü dü, oritiü «oroitu»: filmaz orit niz edo filma orit düt.*

Aditzen eraikuntzak definitzeko eta aurkezteko horiek dira erabilten ditu-dan laburdurak²: *behatiü* aditzak bi eraikuntza horiek baditu, bata *izan* aditz laguntzailearekin eta absolutibo + datibo kasuak (*Allande ABS+musikari* DAT) eta bestea **eduin* aditz laguntzailearekin eta kasu ergatiboa+kasu absolutiboa (*Allandek ERG+musika* ABS). *Nausitiü* aditzak eraikuntza berdinak ditu. Beraz, *nausitüren* bi eraikuntza horiek aurkezteko, era sintetikoan idatziko dut *nausitiü: izan* (ABS+DAT) eta **edün* (ERG+ABS), halaber *oritiü: izan* (ABS+INST) eta **edün* (ERG+ABS), etab.

Egin dudan ikerketaren arabera adineko hiztunek *izan* aditz laguntzailearekiko eraikuntzak erabili nahiago lituzkete, gazteek aldiz **edün* aditz laguntzailearekiko eraikuntzak. Era orokorrean gaur egun **edün* eraikuntzak erabiliagoak dira, testu zaharretan *izanekikoak*. Hori litzateke joera orokorra. Halere gauzak ez dira hain simpleak. Joera hori ez da oraingoa. Idu-ri luke iragan mendeetako idazleek *izan* aditz laguntzailea oraingoek baino gehiago erabiliko luketela, baina eraikuntza bikoitz horietarik batzuk testu zaharretan ere aurki daitezke eta batzuetan aditz gutxiren kasuan idazle bera-ren testuan. Aditzak banan-banan aztertzaz ohartzen da garai honetan gazte batzuek, aditz bakan batzuekin, *izanekiko* eraikuntza nahiago dutela ere, be-reziki aditz horiek euskara batuan edo nafar-lapurtarrean *izanekin* erabiliak baldin badira³. Halere joera orokorra hor da, orain **edün* aditz laguntzailea gero eta gehiago erabilia da.

Bariazio edo aldaketa linguistiko baten baldintzaren argitaratzea gehienetan zaila da. Postulatu ditudan bilakaeraren eragileak horiek *izan* daitzke: erakarpen analogikoa, hizkuntza ukipena edota pentsaketa eta biziaren moduaren aldaketa⁴.

² Laburdurak: ABL = ablatiboa, ABS = absolutiboa, ADL = adlatiboa, ADL TERM = adlatiboa terminatiboa, DAT = datiboa, ERG = ergatiboa, GEN = edutezko genitiboa, L. GEN = leku-denborazko genitiboa, IN = inesiboa, INST = instrumental, PART = partitiboa, PROL = prolatiboa, SOZ = soziatiboa, TERM = terminatiboa.

³ *Ohartü* aditzaren kasua da: «*Idatzizko inkestan gazteek eta bereziki ikastolako haurrek izan (ABS+INST)-ekiko eraikuntza erabilten dute, adinekoek baino gehiago*» (FLV, 2005, 650).

⁴ Proposatu ditudan eragileak: «*hizkuntzaren barneko ekonomia, erakarpen analogikoa, jakinez konkurrentzian diren bi aditz-eraikuntzak elkarrekin bizitzan baitira; izanekiko eraikuntzaren etekin funtzional apalari lotua den ordezkatzea, eta beraz oroimen ekonomia, bi argumentuen arteko bereizketa galdu gabe;*

– hizkuntza ukipena: hizkuntzbarneko ukipena, zubereraren eta euskara batuaren artekoa edo beste euskalkiarekikoa aditz batzuen eraikuntzan eta hizkuntzarteko ukipena: euskara/frantsesa (zeharkako kal-koak)

– edo, eta hau da hipotesi ausartena, azterzen dugun bilakaera hizkuntzaz kanpoko faktore batek erakarria litzateke, pentsaketa eta biziaren moduaren aldaketa zehazki, non gero eta gehiago nahigabeko esperimentzia jasaiten duena (expérient, expericenter) egiletzat hartua den.

– Ikerketa honen zaitasuna da balizko faktore horien egiaztatzea eta bakoitzaren pisua neurtea, aztertu den aditzaren arabera» (FLV, 2007, 415).

Horiek dira aurkitu ditudan izan daitezkeen kasu adierazpen bikoitzeko (edo hirukoitzekiko) baliobiko aditzak⁵. Hogeita hamabi dira baina beste batzuk izan daitezke⁶:

ahatze «ahantzi», baliatiü, behatiü «entzun», borrokatü, damiütü «damutu», dolü izan / dolü iiken / dolüütü / dolü egin «atsekabetu», elestatü «hizketan jardun», etsitü «itxaropena galdu», garaitü, goitiü «garaitu», gozatü, güdiükatü «gudukatu», hasi «zerbaiten lehen zatia egin», hitzartü, hizkatü «hitzez liskartu», hügii üken / hügüntü «higuindu», irabazi (kirolan bereziki), iseatiü «saia-tu+aditz-izena», jabetü, jarraiki «jarraitu», kalakatü / kalakan ari, kanbiatiü «aldatu», minez izan / min üken, mintzatü / mintzo (hizkuntza batez), nausitü «nagusitu», ohartü, oritü «oroitú», sinetsi, so izan / soz izan / so egin, trüfatü, üdüri «iruditu, norbait edo zerbaiten itxura izan», zerbütxatü «baliatu, zerbait edo norbait baliagarri gertatu».

*Jesü Kristen imitazionea liburuak ikerketarako sortu dudan corpora emendatuko du (ikus corpora in FLV, 2005). Martin Maister-en baliobiko aditz berezi horien erabilzeko erak agertarazi den joera orokor hori baieztazen duela ikusiko dugu. Era batez hipotesia egiaztatzen du, Maisterrek aditz horiekin *izan* aditz laguntzailea erabilten baitu nagusiki.*

2. JESÜ KRISTEN IMITAZIONEA ZUBEROTAR LITERATURAN ETA IKERKETA HONEN CORPUSEAN-GALDERA BATZUK METODOLOGIAZ

XV. mendeko Thomas Kempis fraide apaizaren latinezko *De imitatione Christi* (Jesu Kristoren Imitazioa) itzulpen asko izan dira. Euskaraz ere, bereziki lapurteraz, Sylvain Povvreau frantses apezarena XVII. mendeko lehena izanik (J. L. Davant, in Maister, 2010: 22). Martin Maisterren *Jesü Kristen imitazionea* XVIII. mendekoa da. Mende hartako Zuberoako literaturak, Lapurdikoa bezain emankorra ez bazen ere, testu batzuk utzi dizkigu: pastoral testu ugari, Beñat Mardo koplariaren poema, Jüsef Egiategi prosalariaren hilu liburu.

Baliobiko aditz horiez ikuspegi diakronikoa izateko ezagutzen ditugun zubererazko iragan mendeetako testu denak ez ditut begiratu. Aukera bat egin dut, bilaketa automatiko sistemarik ez baitzen testuen gehiengoarentzat. Sei liburu aztertu ditut aditzen «eskuzko» inventarioa eginez: bi XVII. mendekoak, bat XVIII. mendekoa, bi XIX. mendekoak eta bat XX. mendeko hastapeneakoa. Aztertu dudan XVIII. mendekoa Jusef Egiategiren *Lehen liburia edo filosofo huskaldunaren ekheia* da (1785) eta XVII. mendeko bigarrena Athanase Belapeyren *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure ginco jaunaren eçagutzia, salvatu içateco* (1696)⁷. Martin Maisterrenak 1757koa izanik denbora tarte hori betetzen du pixka bat.

⁵ Aditz horien eraikuntza ezberdinak (aditz laguntzailea, kasuak) ezagutzeko ikus Coyos, 2005, 646-651.

⁶ *Büruzagütü* «nagusitu» edo *ihs egin* aditzen kasua izan liteke, adibidez. Hori beste inuesta baten bitartez egiaztatzen da.

⁷ Aztertu dudan lehena, Jean de Tartasen 1666ko *Ontsa hiltzeko bidea*, ez da osoki zuberotartzat hartua. Pello Aguirreren ustez 1676ko *Pronus singulis diebus Dominicis clare & distinctè immediate post Evangelium populo legendus* lehen zuberotar testu ezaguna litzateke (ASJU, 1998, XXXIII-1: 1). Autorea

Noski metodoari buruzko galdera teoriko eta epistemologiko batzuk agertzen dira. Nire corpusa aski hedatu den ikuspegi diakroniko fidagarria izateko? Zer da autore baten adierazgarritasuna, gure kasuan Maisterrena? Zein neurritan Maisterren testuak bere garaiko zuberera ordezkatzen duen? Testu idatzi batek zein hurbiltasun-harremanik duen garaiko ahozko hizkuntzarekin? Erantzunak ez dira errazak, garai hartako zubererazko testuak ez dira ugari konparaketak egiteko, pastoral testuak ez ezik⁸. Gainera, bistean da, orduko ahozko hizkuntza ez dugu ezagutzen. Halere pastoraletan elkarritzeta eta bakarrizketa badaude⁹. Dena den, corpusa nahikoa ez baldin bada ere, Maisterren *Jesü Kristen imitazionea* liburuak osatzen du, XVIII. mendeko beste lekukotasun bat ekarriz.

Maisterren hizkuntzari berari interesatzen baldin bagatzaizkio itzulpen bat egin duela kontuan hartu behar dugu, Maisterrek berak esaten zuen bezala: «*h(ai)en (e)üskarala ützüli izan den lib(ii)rüño haur*» (2010: 40). Davantek «*hitzen kokapenean, maiz galizismo edo latinismo kutsua usnatzen*» duela azpimarratzen du (Maister, 2010: 33). Baina «*Ligiko erretoreak zuberera sotil, aberats, elegantea du. Aditza bikainki derabil, hiztegi aratz eta zehatza, esaldi ederrak ugari. Azpimarratzeko zaitz bereziki aditzaren aberastasuna*» esaten digu zuberotar euskaltzainak (*ibid.*). Eta hau da garrantzitsu dena guretzat, aditzaren erabilera. Iduri luke hizkuntzaren erabileraren alor horretan, itzulpenak, hizkuntza batetik beste batera pasatzeak, ondoriorik izan ez zukeela. «*Horien euskara (Belapeyrena eta Maisterrena) ez zaigu askorik zaharkitu, kasik bere hartan ekarri digu Zuberoako Eliza katolikoak*» azpimarratzen du Davantek (Maister, 2010: 35).

Lot gaitezen orain ikergaiari, kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzaren azterketari Maisterren *Jesü Kristen imitazionea* liburuan.

3. BALIOBIKO ADITZ BATZUEN ERABILERA JESÜ KRISTEN IMITAZIONEAN

3.1. Aditzen eta eraikuntzen inventarioa

2005ean ateratu ditudan hoげita hamabi aditz horiek Maisterren testuan bilatu ditut eta haien eraikuntza banan-banan notatu agerpenaren arabera (ikus taula 1. eranskinean). Aditza testuinguru horietan ez dut kontuan hartu:

- bigarren aditzaren izen-determinatzalea ez bada gauzatu¹⁰,
- aditza aditz-laguntzailerik gabe erabilia bada,
- aditza *behar, ahal* ala *nahi* moduzko aditzekin erabilia bada (*behar* aditzak **edün* aditz-laguntzailea inposatzen du, aldiz *ahal* eta *nahi* moduzko aditzek aditz-laguntzailea ez dute inposatzen oraiko zubereran)

ez ezaguna da baina Athanase Belapeyre litzateke Aguirreren ustez. Davanten ustez ere bai: «*Agerian dago berak (A. Belapeyre) idatzi zuela 1676an «Pronus singulis diebus dominicis... post Evangelium populo legendus» delako liburuxka*» (Davant in Maister, 2010, 34).

⁸ «*Patri Urkizu euskal filologoak ez argitaratürik diren antzerki testu hanitz badela orano ohartarazten dü, hoien idazleak erakasle edo herriko etxeko idazkari zirelarik*». Coyos, Xiberotarra Zuberoera, 2007, 45.

⁹ Adibidez, Gidor Bilbaok ASJUan publikatu zuen 1793ko *Edipa* pastorala ez dut aztertu (Jean Mekol Garindainekoaren *Edipa* pastorala, ASJU, 1996, XXX-1, 239-332).

¹⁰ Dolu üken «damutu» eta irabazi aditzak kontuan hartu ditut, bigarren aditzaren izen-determinatzailerik gabe baldin baziren ere, aditz-laguntzailea zein zen ikusteko.

- aditza beste bati juntatua bada aditz-laguntzaile bakar batekin bien-tzat.

Errepikapen asko badaude. Aditz bat egitura berean orrialde berean bi al-diz ager daiteke, batzuetan hiru aldiz.

Aditzaren ondoan, aditz laguntzailea eta bi izen-determinatzailen kasuak parantesitan emanen ditut, ondotik liburuko agerpenaren orrialdea, aditzen ordena alfabetikoa segituz.

- *abatze* «ahantzi»: *izan* (ABS+DAT), 87. or. / **edün* (ERG+ABS), 67., 130. or.
- *baliatü*: *izan* (ABS+INST), 89. or.
- *behatü* «entzun»: *izan* (ABS+DAT), 39., 48., 89., 119. (2), 120. (3), 121. (2), 129., 180., 224. or.
- *bühiertü* «norbaiten aurka altxatu»: *izan* (ABS+DAT), 188., 195. or., *izan* (ABS+-ren kontre), 70. or.
- *bürüzagıtü* «nagusi»: *izan* (ABS+GEN), 138. or.
- *dolü üken* «damutu»: **edün* (ERG+bigarren determinatzailerik gabe), 66. or.
- *elestatü* «hizketan jardun»: *izan* (ABS+DAT), 66. or. / *izan* (ABS+SOC), 97., 232. or.
- *garaitü*: **edün* (ERG+ABS), 66., 67., 69., 83., 85., 108. (2), 133., 138., 139., 148., 156., 193., 197., 235. or.
- *goitü*: **edün* (ERG+ABS), 67. (2), 70., 138. or.
- *gozatü*: *izan* (ABS+INST), 66., 76., 79., 90., 99., 137. (2), 142., 155., 156. (3), 159., 162., 170., 198., 223., 228., 232. or. (2) / **edün* (ERG+ABS), 95., 97., 98., 99., 101., 102., 109., 119., 143., 151., 164., 166., 184., 216., 235. or.
- *hasi*: *izan* (ABS+ aditz + -t(z)en), 64., 67., 70., 81., 88., 95. (3), 102. (2), 118., 172., 224. or.
- *bügii üken*: **edün* (ERG+ABS), 195. or.
- *ihes egin*: **edün* (ERG+DAT), 95. or.
- *irabazi*: **edün* (ERG+ABS izen determinatzalerik gabe), 170. or.
- *iseatü* «saiatu+aditz-izena»: *izan* (ABS+ADL -ra), 41., 48., 56., 66., 67. (2), 74., 75., 79., 80., 88., 90., 93. (3), 101., 119., 128., 135., 136., 137., 138., 152., 163., 169., 176., 186. (2), 188., 194., 195., 203., 218., 220., 223., 226., 239. or. / *izan* (ABS+ADL TERM -rat), 87. or.
- *jarraiki* «jarraitu»: *izan* (ABS+DAT), 55., 65., 89., 90., 112., 113., 114. (2), 117., 118. (2), 126., 130. (2), 137., 142., 145., 155., 166. (2), 171., 186., 199., 201., 227. or., *izan* (ABS+-ren ondoan), 118. or.
- *kanbiatü* «aldatu, desberdin bilakarazi»: *izan* (ABS+ADL), 48., 202., *izan* (ABS+ADL TERM), 193. or.
- *mintzatü* / *mintzo* «hizkunta batez hitz egin». Agerpenik ez dut aurkitu, baina nola: *izan* (ABS+INST), 61. or. (*hanitx maneraz*), 65. or. (*gogo honez*), *izan* (ABS+SOZ), 80. or. (*segürantzareki(n)*).
- *orit* «oroitu»: *izan* (ABS+INST), 56., 79., 83., 88., 94., 95., 123. (2), 150., 162., 163., 164., 184., 202., 210., 216., 220., 228., 231., 234. or.
- *sinetsi*: **edün* (ERG+ABS), 200., 229. or.
- *so egin*: *izan* (ABS+DAT), 112. or. / **edün* (ERG+DAT), 75., 89., 94., 98., 127., 151., 164., 166., 171., 176., 177., 180., 194., 195. (2), 207., 210.,

220., 227. or. / **ediün* (ERG+IN), 162. or. / **edün* (ERG+ADL TERM), 103., 175. or., *sorik egin*: **ediün* (ERG+DAT), 105., 117., 126., 236. or.

- *so egon*: *izan* (ABS+DAT), 57., 59., 61., 66. (2), 78. (2), 83., 94. (2), 103., 153., 171., 230. or., *izan* (ABS+ADL TERM), 98. or.

• *üdüri* «iruditu, norbait edo zerbaiten itxura izan»: *izan* (ABS+ABS), 113., 196. / *izan* (ABS+DAT), 160., 196. or. / *izan* (ABS+PART), 150. or. / *izan* (ABS+GEN), 118. or. / *izan* (ABS+bezala), 76., 77. or. / **ediün* (ERG+ABS), 80., 162. or. (*üdürik*)

- *zerbütxatü* «baliatu, zerbait edo norbait baliagarri gertatu»: *izan* (ABS+INST), 46., 141., 143., 167., 219. or.

3.2. Aditzen erabilera, gaurkoari konparaketa

• *ahatze* «ahantzi»: *izan* (ABS+DAT), **ediün* (ERG+ABS). Hemen Maisterrek bi eraikuntza ezberdin erabilten ditu. Hizkuntza-fenomeno hori *gorabehera* (*fluctuation, fluctuación*) deitzen da (Coyos, 2005: 635), hiztunaren, norbanakoaren mailan gaudelakotz. Gaur egun *izanekiko* eraikuntza gutxi erabilia da, galdua ez izanik halere. Gazteek ez dute erabilten (Coyos, 2005: 647).

• *baliatiü*: *izan* (ABS+INST). Hemen agerpen bakar bat badugu eta beraz eraikuntza bat bakarrik, *izanekikoa*. Gaur egun gazteek **ediün* (ERG+ABS)-ekikoa erabilten dutela ohartu naiz, *izanekikoa* adineko leku-koek nahiago dutelarik (*ibid.*).

• *behatiü* «entzun»: *izan* (ABS+DAT) eraikuntza honen agerpenak ugari dira Maisterren testuan, 13, eta **edün* (ERG+ABS)-ekikoa ez du sekula baliatzen. XXI. mendeko hastapen honetan testu idatzietan *izanekikoa* erabilia da, baina diskurtsoan **ediün* (ERG+ABS)-ekikoa da erabiliena gazteengan bereziki.

• *bihürtü* «norbaiten aurka altxatu»: *izan* (ABS+DAT), *izan* (ABS+-ren kontre). 2005-2007ko artikuluetan aditz hori ez nuen kontuan hartu, **ediün* (ERG+ABS) eraikuntzarekin beste adiera baitu: «bihurtu». *Izanekiko* bi eraikuntza horiek gorabeheratzat ez ditugu hartu behar; aldaerak dira, -ren kontre postposizioa aditz askorekin erabil baitaiteke.

• *büriüzagitiü* «nagusia»: *izan* (ABS+GEN) aldi batez eta *izan* (ABS) bigarren izen determinatzailerik gabe beste batez. 2005-2007ko ikerketan aditz hori ere ez nuen kontuan hartu. Gaur egun iruditzen zait **ediün* (ERG+ABS) eraikuntza posible daitekeela. Baina hori baieztatzeko litzateke.

• *dolii üken* «damatu»: Agerpen bakar bat badago, **ediün* (ERG+bigarren determinatzailerik gabe) eta ez *izanekin* posible balitz bezala.

• *elestatü* «hizketan jardun»: Bi eraikuntza baditugu, beti *izanekin*. Aldi batez *izan* (ABS+DAT), *izan* (ABS+SOC) bi aldiz. Egia da gaur egun ere **ediün* (ERG+ABS)-ekiko eraikuntza urri dela. Testuetan ez dut aurkitu.

• *garaitü*: **edün* (ERG+ABS). Maisterrek beste eraikuntzarik ez du erabili, agerpenak asko izanik ere, 15. Aztertu ditudan testu zaharretan hau da aurkitu dudan eraikuntza. Motibazio semantikoa eragilea *izan* daitekeela eraikutsi dut 2005eko artikuluan (651.-652. or.), aditz mota horrekin prozesua amaitzen baita (*garaitü, goitü, nau sitü*). Baina zer esan aztertu ez nuen *büriüzagitiü* aditzaz, kontradibidea litzatekeena? Arestian esan bezala ikerketa berezi bat merezikoko luke, gaur egungo erabilera ezagutzeko.

- *goiti*: **edün* (ERG+ABS) *garaitürekin* bezala, lau agerpen. Orain ere hau da eraikuntza kasik bakarra.
- *gozati*: *izan* (ABS+INST), 21 aldiz / **edün* (ERG+ABS), 15 aldiz. Hemen berriz gorabehera bat daukagu. Gaur egun **edün*ekiko eraikuntza nagusia da, egin nuen inuesta idatzian *izanekikoa* bi aldiz agertu baldin bada ere.
- *hasi* «zerbaiten lehen zatia egin»: Adiera hori bigarren izen-determinatzaile batekin ez dut aurkitu, baina aditz+-*t(z)en* 12 aldiz. Eraikuntza horren adiera «ekintza ez gertatzetik gertatzera iragatea» da. Eraikuntza *izan* (ABS+aditz-*t(z)en*) da beti. Gaur egun hola da usuenik, **edün* (ERG+aditz-*t(z)en*) edo **edün* (ERG+ABS) eraikuntzak gerta daitezke ere.
- *bigüi iken*: **edün* (ERG+ABS). Agerpen bakar bat. Aztertu ditudan lehenagoko testuetan *izan* (ABS+DAT) da eraikuntza nagusiena. Gaur egun **edün* (ERG+ABS) da.
- *ibes egin*: **edün* (ERG+DAT). Agerpen bakar bat aurkitu dut. 2005-2007ko artikuluetan aditz hori ez nuen kontuan hartu. Halere iduritzen zait **edün* (ERG+ABS) eraikuntza posible litzatekeela, baina intuizio hori egiazatzaera da.
- *irabazi*: **edün* (ERG+bigarren determinatzailerik gabe). Agerpen bakar bat badago. Nahiz lehenagoko testuetan, nahiz oraingo testuetan *izanekikorik* ez dut aurkitu.
- *iseatü* «saiatu+aditz-izena»: *izan* (ABS+ADL -*ra*) da eraikuntza bakarra, 38 agerpenekin. *Izan* (ABS+ADL TERM -*rat*) eraikuntza bestearren aldaera da, gorabeherarik ez da. Agerpen bat aurkitu dut.
- *jarraiki* «jarraitu»: *izan* (ABS+DAT), 25 aldiz. *Izan* (ABS+-*ren ondoan*) lehen eraikuntzaren aldaera da, agerpen bat. Gaur egun **edün* (ERG+ABS) eraikuntza hedatzen da eta gazteengan *següi* aditza (Coyos, 2005: 649).
- *kanbiati*: «aldatu, desberdin bilakarazi»: *izan* (ABS+ADL), 2 aldiz eta *izan* (ABS+ADL TERM) aldi batez. Erabilera honetan, adlatiboaren bitartez, aldatzen dena zer bilakatzen den esaten da. Adiera hori 2005eko corputsean ez nuen aztertu. Beste agerpen bat ere daukagu bigarren determinatzailerik gabe eta *izanekin*. Gaur egun «norbaitek zerbait aldatu, desberdin bilakarazi» adierazteko **edün* (ERG+ABS) da eraikuntza erabiliena.
- *mintzatü* / *mintzo* «hizkuntza batez hitz egin». Adiera hori ez dut aurkitu. Halere testuan *mintzatü* aditza 19 aldiz erabilia da bi izen-determinatzailekin (adibidez *izan* (ABS+INST) «zerbaitez mintzatu», *izan* (ABS+DAT) «norbaitez mintzatu»), 6 aldiz bigarren izen-determinatzailerik gabe eta bi aldiz *mintzo* forman. *Izan* da aditz laguntzaile bakarra. Gaur egun «hizkuntza batez hiz egin» adiera **edün* (ERG+ABS) eraikuntzarekin aurki daiteke, baina *izan* (ABS+INST) da ohiko eraikuntza.
- *orit* «oroitwu»: *izan* (ABS+INST), 20 aldiz. Aditz+-*larekiko* eraikuntzan ere *izan* aditz laguntzailea da. Gaur egun **edün* (ERG+ABS) eraikuntza aurki daiteke, baina *izanekikoa* da erabiliena gazteengan ere (Coyos, 2005: 650).
- *sinetsi*: **edün* (ERG+ABS), 2 aldiz. Gaur egun **edün* (ERG+ABS), **edün* (ERG+DAT) edo **edün* (ERG+IN) aurki daitezke.
- *so egin*: *izan* (ABS+DAT), *handitarziünari so egiten balin bada* (112. or.). Hapaxa *izan* daiteke edo forma inpertsonala. Bigarrena dela uste dut.

**Edün* (ERG+DAT), 19 aldiz; **ediün* (ERG+IN), aldiz batez; **ediün* (ERG+ADL), 2 aldiz; *sorik egin*: **ediün* (ERG+DAT), 4 aldiz. Gaur egun ere **ediün* (ERG+DAT) eraikuntza da hedatuena.

- *so egon: izan* (ABS+DAT). 2005ean eraikuntza hori ez nuen kontuan hartu. Maisterrek 14 aldiz bederen erabili du eta behin *izan* (ABS+ADL TERM). Nire arabera eraikuntza hori **ediün* (ERG+ABS)-en aldaera ez da eta ez ere gorabehera. Adiera ez da berdin-berdina, *egon* aditzarengatik.

- *üdüri* «iruditu, norbaiten edo zerbaiten itxura izan»: *izan* (ABS+ABS), 2 aldiz. / *izan* (ABS+DAT), 2 aldiz. / *izan* (ABS+PART), aldi batez / *izan* (ABS+GEN), aldi batez / *izan* (ABS+bezala), 2 aldiz / **ediün* (ERG+ ABS), 2 aldiz. Maisterrek aditz hori asko erabili du. Bilatzen nuen adiera «norbaiten edo zerbaiten itxura izatea» zen. Adiera zehatz honekin ere eraikuntzen ezberdintasuna handia da.

Gaur egun **ediün* (ERG+ ABS) eraikuntza hedatzen da eta **ediün* (ERG+ DAT)-ren lehen agerpenak dauzkagu.

- *zerbütxatü* «baliatu, zerbait edo norbait baliagarri gertatu»: *izan* (ABS+INST), 5 aldiz. *Izan* (ABS+PROL) eraikuntza desberdina da, adiera ez baita berdin-berdina: ... *borogantzatako zerbütxatzen beita* (234. or.).

Maisterrek adiera hurbilekiko *enplegatü* aditza **ediün* (ERG+ ABS) eraikuntzarekin erabili du (95. or.), orain bezala.

ONDORIO GISA

Martin Maisterren zubererazko 1757ko *Jesii Kristen imitazionea* obran baliobiko aditz batzuen erabilera aztertu da, hain zuzen Zuberoan gaur egun kasu adierazpen bikoitzekiko (edo hirukoitzekiko) baliobiko diren aditzak. Liburu horretan autoreak *izan* aditz laguntzailearekiko eraikuntzak nagusiki erabilten dituela ohartu da, gaur egun erabilten den baino gehiago. Maisterren aditz horien erabilera Athanase Belapeyrenari zinez hurbil zaio (*Catechima laburra...*, 1696); Jusef Egiategik **ediün* pixka bat gehiago erabilten du (*Lehen liburia...*, 1785).

Martin Maisterren aditz horien erabilera gorabehera batzuk agertarazi da. *Ahatze* (*izan* (ABS+DAT) edo **ediün* (ERG+ABS)), *gozatiü* (*izan* (ABS+INST) edo **ediün* (ERG+ABS)), eta *üdüri* (*izan* kiko eraikuntza zenbait edo **ediün* (ERG+ABS)) aditzen kasua da.

XXI. mendeko hastepen honetan **ediün* (ERG+ABS) bereziki eta **ediün* (ERG+DAT) eraikuntzak hedatzen dira, *izan* (ABS+DAT) eta *izan* (ABS+INST) eraikuntzen kaltetan.

Konparaketa egiteko, aurten, 2010ean, emana izan den pastoralaren testua aztertu da, *Xahakoa* pastoralala (ikus 2. eranskina). Patrick Quéheille autore barkoxtarra **edün* (ERG+ABS) eraikuntza erabilten du Martin Maisterrek *izan* kiko erabili duenean aditz horiekin: *behatü* «entzun», *iseatü* «saiatu», *jarraiki* «jarraitu». *Ahatzekin* Quéheille **ediün* (ERG+ABS) eraikuntzaz bakarrik baliatzen da.

Ildo honetan bi testu horien konparaketak argitaratu den joera orokorra egiaztatzen du, baliobiko aditz zenbaitekin **ediün* aditz laguntzailea gero eta gehiago erabilia da zubereran. Azken mendeetan *izan* aditz horien aditz laguntzailea zen.

ERANSKINAK

1. Aditzen erabilera Maisterren Jesü Kristen imitazionalean

Taulako 1. zutabeen aditzaren izena emana da, 2.-3.ean horren aditz laguntzailea. Laugarren zutabeen baliobiko aditz horren bigarren izen-determinatzalea kopiatu da, lehena aditz laguntzaileari lotua baita (izen-determinatzalea absolutiboarekin *izan*-en kasuan, izen-determinatzalea ergatiboarekin **edün*-en kasuan). Bosgarren zutabeen bigarren izen-determinatzalearen kasua emana da, 6. zutabeen aditzaren adiera euskara batuan eta azken zutabeen aditz horren agerpenaren orrialdea liburuan.

MAISTER Martin, 2009, *Jesü Kristen imitazionalea* (1757)

Aditza	<i>izan</i>	<i>*edün</i>	2. determinatzalea	Kasua	Adiera	Or.
a	ABS	ERG				
<i>ahatze</i>	X		<i>gizoner</i>	DAT	<i>abantzi</i>	87
“		X	<i>kostüma gaixtoa</i>	ABS	“	67
“		X	<i>praubezia</i>		“	130
<i>baliatiü</i>	X		<i>süstengatzeaz</i>	INST	<i>erabili</i>	89
<i>behatiü</i>	X		<i>zure botzari</i>	DAT	<i>entzun</i>	39
“	X		<i>kon(t)seilüer</i>	“	“	48
“	X		<i>hire hasperenari</i>	“	“	89
“	X		<i>bitzer</i>	“	“	119
“	X		<i>düanari</i>	“	“	119
“	X		<i>-zü</i>	“	“	120
“	X		<i>-zü</i>	“	“	120
“	X		<i>-zü</i>	“	“	120
“	X		<i>-zü</i>	“	“	121
“	X		<i>ene bitzer</i>	“	“	121
“	X		<i>-k</i>	“	“	129
“	X		<i>ene hitzari</i>	“	“	180
“	X		<i>-tada-</i>	“	“	224
<i>bürüzagitiü</i>	X		<i>aragiren</i>	GEN	<i>nagusitu</i>	138
<i>elestatü</i>	X		<i>gogo honez</i>	INST	<i>elekatu</i>	65
“	X		<i>Jinkoari</i>	DAT	“	66
“	X		<i>hareki(n)</i>	SOZ	“	97
“	X		<i>bere adiskideareki(n)</i>	“	“	232
<i>enplegatiü</i>		X	<i>egüna</i>	ABS		95
<i>garaitü</i>		X	<i>bizio bakoitz bat</i>	ABS	<i>garaitu</i>	66
“		X	<i>bideak</i>	“	“	67
“		X	<i>-tü-</i>	“	“	69
“		X	<i>gaizto bat</i>	“	“	83
“		X	<i>bizioa</i>	“	“	85
“		X	<i>mündüa</i>	“	“	108
“		X	<i>amoria</i>	“	“	108
“		X	<i>karitateak oro</i>	“	“	133
“		X	<i>kanpotiko etsaia</i>	“	“	138
“		X	<i>zure süperbia</i>	“	“	139
“		X	<i>enjogi dena</i>	“	“	148
“		X	<i>n-</i>	“	“	156
“		X	<i>zihauen bürrüa</i>	“	“	193

Aditza	izan	*edün	2. determinatzalea	Kasua	Adiera	Or.
"		X	<i>hau</i>	"	"	197
"		X	<i>gaüza hori bera</i>	"	"	235
<i>goitiü</i>		X	<i>txipia eti ehiak</i>	ABS	<i>garaitu</i>	67
"		X	<i>gaitzagoak</i>	"	"	67
"		X	<i>-tü-</i>	"	"	70
"		X	<i>d-</i>	"	"	138
<i>gozatiü</i>	X		<i>bake handi batez</i>	INST	<i>gozatu</i>	66
"	X		<i>ikustez</i>	"	"	76
"	X		<i>alagrantziaz</i>	"	"	79
"	X		<i>kon(t)olazionetzaz (sic)</i>	"	"	90
"	X		<i>alagrantziaz</i>	"	"	99
"	X		<i>h(ai)etzaz</i>	"	"	137
"	X		<i>h(ai)etzaz</i>	"	"	137
"	X		<i>(ahal) plazerez oro</i>	"	"	142
"	X		<i>(ahal) bake handi batez</i>	"	"	155
"	X		<i>bake oso batez</i>	"	"	156
"	X		<i>libertateaz</i>	"	"	156
"	X		<i>libertateaz</i>	"	"	156
"	X		<i>bake handi batez</i>	"	"	159
"	X		<i>libertate hobe batez</i>	"	"	162
"	X		<i>bake handiaz</i>	"	"	170
"	X		<i>argi osoaz</i>	"	"	198
"	X		<i>presentaz</i>	"	"	214
"	X		<i>libertateaz</i>	"	"	223
"	X		<i>izan denaz</i>	"	"	228
"	X		<i>Jinkoaz</i>	"	"	232
"	X		<i>zützaz</i>	"	"	232
"		X	<i>d- -tü-</i>	ABS	"	95
"		X	<i>bakea eta alagrantzia</i>	"	"	97
"		X	<i>amorio apür bat</i>	"	"	98
"		X	<i>gaüzak</i>	"	"	99
"		X	<i>hura</i>	"	"	102
"		X	<i>bihotzeko libertatea</i>	"	"	101
"		X	<i>kon(t)solazione bat</i>	"	"	109
"		X	<i>gaüza horik</i>	"	"	119
"		X	<i>d-</i>	"	"	143
"		X	<i>d- -tü-</i>	"	"	151
"		X	<i>erras hon den bat</i>		"	164
"		X	<i>züü</i>	"	"	166
"		X	<i>zure erresumako gloria</i>	"	"	184
"		X	<i>zure ezitarzüna</i>	"	"	216
"		X	<i>deüs ere</i>	"	"	235
<i>basi</i>	X		<i>aditz + -t(z)en</i>		<i>basi</i>	64
"	X		"		"	67
"	X		"		"	70
"	X		"		"	81
"	X		"		"	87
"	X		"		"	88
"	X		"		"	95
"	X		"		"	95

Aditza	<i>izan</i>	* <i>edün</i>	2. determinatzaila	Kasua	Adiera	Or.
“	X		“		“	95
“	X		“		“	102
“	X		“		“	102
“	X		“		“	118
“	X		“		“	172
“	X		“		“	224
<i>hügü üken</i>		X	<i>aragiaren nahiküntea</i>	ABS	“	195
<i>ihes egin</i>		X	<i>falta txipier</i>	DAT	<i>ihes egin</i>	95
<i>iseiatü</i>	X		<i>aditz + -t(z)era</i>		<i>saiatu</i>	41
“	X		“		“	48
“	X		“		“	56
“	X		“		“	59
“	X		“		“	66
“	X		“		“	67
“	X		“		“	67
“	X		“		“	74
“	X		“		“	75
“	X		“		“	79
“	X		“		“	80
“	X		“		“	88
“	X		“		“	90
“	X		“		“	93
“	X		“		“	93
“	X		“		“	93
“	X		“		“	101
“	X		“		“	119
“	X		“		“	128
“	X		“		“	135
“	X		“		“	136
“	X		“		“	137
“	X		“		“	138
“	X		“		“	146
“	X		“		“	148
“	X		“		“	152
“	X		“		“	163
“	X		“		“	169
“	X		“		“	176
“	X		“		“	186
“	X		“		“	186
“	X		“		“	188
“	X		“		“	194
“	X		“		“	195
“	X		“		“	203
“	X		“		“	218
“	X		“		“	220
“	X		“		“	223
“	X		“		“	226
“	X		“		“	239
“	X		<i>aditz + -t(z)erat</i>		“	87
<i>jarraiki</i>	X		<i>eni</i>	DAT	<i>jarraitu</i>	55

Aditza	izan	*edün	2. determinatzalea	Kasua	Adiera	Or.
"	X		<i>bati</i>	"	"	65
"	X		<i>-zü-</i>	"	"	89
"	X		<i>nahikünt(e)r</i>	"	"	90
"	X		<i>Jesüsi</i>	"	"	112
"	X		<i>laidoari</i>	"	"	113
"	X		<i>hitzari</i>	"	"	114
"	X		<i>Jesüsi</i>	"	"	114
"	X		<i>Jesüsi</i>	"	"	115
"	X		<i>-zü-</i>	"	"	117
"	X		<i>hari</i>	"	"	118
"	X		<i>-t</i>	"	"	118
"	X		<i>zuri</i>	"	"	126
"	X		<i>bere(n) sendimentüari</i>	"	"	130
"	X		<i>bere(n) sendimentüari</i>	"	"	130
"	X		<i>h(ai)er</i>	"	"	137
"	X		<i>zureari</i>	"	"	142
"	X		<i>saintüen hatzer</i>	"	"	145
"	X		<i>h(ai)er</i>	"	"	148
"	X		<i>botzari</i>	"	"	155
"	X		<i>aragiaren gozoari</i>	"	"	166
"	X		<i>zuri</i>	"	"	166
"	X		<i>pikarrai denari</i>	"	"	171
"	X		<i>-zü</i>	"	"	186
"	X		<i>-t</i>	"	"	199
"	X		<i>-o-</i>	"	"	201
"	X		<i>egitate honari</i>	"	"	227
"	X		<i>ene ondoan</i>		"	118
<i>kanbiatiü</i>	X		<i>berotarzün saintü batetara</i>	ADL	<i>aldatu</i>	48
"	X		<i>eztitarzünnetara</i>	"	"	202
"	X		<i>honealat</i>	ADL T.	"	193
<i>mintzatiü</i>	X		<i>hanitx maneraz</i>	INST	<i>mintzatu</i>	61
"	X		<i>gogo honez</i>	"	"	65
"	X		<i>segürantzareki(n)</i>	SOZ	"	80
<i>orit</i>	X		<i>erran zahar honez</i>	INST	<i>oroitu</i>	56
"	X		<i>hontarzünnetzaz</i>	"	"	79
"	X		<i>hiltzeaz</i>	"	"	83
"	X		<i>zützaz</i>	"	"	88
"	X		<i>desein honaz</i>	"	"	94
"	X		<i>azkentzeaz</i>	"	"	95
"	X		<i>ükeitetzaz</i>	"	"	123
"	X		<i>zure bekatüetzaz</i>	"	"	123
"	X		<i>inikitateaz</i>	"	"	150
"	X		<i>hitz hoietzaz</i>	"	"	162
"	X		<i>barnetikoetzaz</i>	"	"	163
"	X		<i>den honez</i>	"	"	164
"	X		<i>zibaurtzaz</i>	"	"	184
"	X		<i>nitzaz</i>	"	"	202
"	X		<i>hontarziinez</i>	"	"	210
"	X		<i>Jinkoaz</i>	"	"	216
"	X		<i>pasione saintüaz</i>	"	"	220

Aditza	izan	*edün	2. determinatzilea	Kasua	Adiera	Or.
“	X		<i>horietzaz</i>	“	“	228
“	X		<i>zure faltetzaz</i>	“	“	231
“	X		<i>direnetzaz</i>	“	“	234
<i>sinetsi</i>		X	<i>n-</i>	ABS	<i>sinetsi</i>	200
“		X	<i>sinetsi züena</i>	“	“	229
“		X	<i>aditz + -la</i>		“	73
“		X	<i>aditz + -la</i>		“	209
<i>so egin</i>	X		<i>handitarzünari</i>	DAT	<i>so egin</i>	112
“		X	<i>etsenplü bizer</i>	“	“	75
“		X	<i>zure azken(t)zeari</i>	“	“	89
“		X	<i>fraide(e)r eta serorer</i>	“	“	94
“		X	<i>gaüzer orori</i>	“	“	98
“		X	<i>emaiteari</i>	“	“	127
“		X	<i>handitarzünari</i>	“	“	151
“		X	<i>gaüzer</i>	“	“	164
“		X	<i>zaioni</i>	“	“	166
“		X	<i>gaüza hoier</i>	“	“	171
“		X	<i>-o-</i>	“	“	176
“		X	<i>jüjamentuari</i>	“	“	177
“		X	<i>zihauri</i>	“	“	180
“		X	<i>berauri</i>	“	“	194
“		X	<i>datekeanari</i>	“	“	195
“		X	<i>gaüza temporaler</i>	“	“	195
“		X	<i>-da-</i>	“	“	207
“		X	<i>eliza eder eta handier</i>	“	“	210
“		X	<i>Jesü Kristen hatzer</i>	“	“	220
“		X	<i>zoini</i>	“	“	227
“		X	<i>egian</i>	IN	“	162
“		X	<i>zihaurganat</i>	ADL	“	103
“		X	<i>kreatüre(n)ganat</i>		“	175
<i>sorik egin</i>	X		<i>itxürari</i>	DAT	<i>so egin</i>	105
“		X	<i>zihauari</i>	“	“	117
“		X	<i>gaüza emanari</i>	“	“	126
“		X	<i>kon(t)solio propiari</i>	“	“	236
<i>so egon</i>	X		<i>gaüzer</i>	DAT	<i>so egon</i>	57
“	X		<i>berauri</i>	“	“	59
“	X		<i>hari</i>	“	“	61
“	X		<i>guri</i>	“	“	66
“	X		<i>kontzientziari</i>	“	“	66
“	X		<i>gihauri</i>	“	“	78
“	X		<i>eginbideari</i>	“	“	78
“	X		<i>aragiari</i>	“	“	83
“	X		<i>emaiteari</i>	“	“	94
“	X		<i>kapü(t)xi</i>	“	“	94
“	X		<i>Jinkoari</i>	“	“	103
“	X		<i>bakeari</i>	“	“	153
“	X		<i>aragiari</i>	“	“	171
“	X		<i>argiari</i>	“	“	185
“	X		<i>apezer</i>	“	“	230
“	X		<i>horrat honat</i>	ADLT	“	98

Aditza	<i>izan</i>	* <i>edün</i>	2. determinatzalea	Kasua	Adiera	Or.
<i>üdüri izan</i>	X		<i>liroienak</i>	ABS	<i>iruditu</i>	113
“	X		<i>bera</i>	“	“	196
“	X		<i>erraileari</i>	DAT	“	160
“	X		<i>Jinkoaren semeari</i>	“	“	196
“	X		<i>haboro Jesü Kristen</i>	GEN	“	118
“	X		<i>-tze- + ezdeüs bezala</i>	<i>bezala</i>	“	76
“	X		<i>gizoner + bezala</i>	“	“	77
<i>üdüri izan</i>	X		<i>zü üdüririk ez</i>	PART	<i>iruditu</i>	150
<i>üdüri üken</i>		X	<i>deüs ere üdüririk ez</i>	ABS	“	162
“		X	<i>debot baten üdüria</i>	ABS	“	80
<i>zerbütxatü</i>	X		<i>hartzaz</i>	INST	<i>enabili</i>	46
“	X		<i>(ahal) hartzaz</i>	“	“	141
“	X		<i>hon temporaletzaz</i>	“	“	143
“	X		<i>armaz</i>	“	“	167
“	X		<i>hitzaz</i>	“	“	219
“	X		<i>borogantzatako</i>	PROL	“	234

2. Aditzen erabilera Patrick Quéheilleen Xahakoa pastorelean (2010)

Martin Maisterren aditzen erabilerarek konparaketa txiki bat egin nahiak, aurtengo pastoral testua aztertu dut, Barkoxen emana den *Xahakoa* pastoralak (Quéheille Patrick, 2010). Pastoral testu batean ikertzen ditudan aditz hoien agerpen gutxi baldin bada ere oraingo pastoral testuak laburrak baitira, holako testuak garrantzitsuak dira, lehen bezala zubererazko testu idatzi asko ez baita gaur egun.

Pastoralaren testuan, P. Quéheilleen testua eta A. Attuliren kantuak bereizi ditut, autorea berdina ez baita eta garaia ez ere. Alexis Etchecopar *Attulik* 86 urte balitzke gaur egun (1924-2005). Beste autore bat agertzen da, Joanes Etxebarria. Zuberotar gazte horren testuan bi aditz erabilera kontuan hartu dut.

Pastoralean zuberotar ez den norbait mintzatzen delarik ez dut kontuan hartzen (Matin, Xalbador...).

Aditz horien erabilera biziki argigarria da P. Quéheilleen testuan, **edün* aditz laguntzailea nagusitzen da.

QUÉHEILLE Patrick, 2010, *Xahakoa pastoralak*

Aditza	<i>izan</i>	* <i>edün</i>	2. determinatzalea	Kasua	Adiera	Or.
	ABS	ERG				
<i>abatze</i>		X	<i>agitü zena</i> (J. Etxebarria)	ABS	<i>ahantzi</i>	15
“		X	<i>aitamen denbora</i>	“	“	161
“		X	<i>bere hizkuntza</i>	“	“	165
<i>behatiü</i>	X		<i>guri</i> (A. Attuli)	DAT	<i>entzun</i>	85
“	X		<i>amadio ... horri</i> (A. Attuli)	“	“	157
“	X		<i>haren hitzen</i> (J. Etxebarria)	GEN	“	131
“		X	<i>primaka ederra</i>	ABS	“	135
“		X	<i>kantoreen oibarzüna</i>	“	“	149
<i>elestatü</i>	X		<i>euskaraz</i>	INST	<i>elekatu</i>	21
<i>gozatiü</i>		X	<i>emazteak</i>	ABS	<i>gozatu</i>	97

Aditza	<i>izan</i>	* <i>ediün</i>	2. determinatzalea	Kasua	Adiera	Or.
“		X	<i>lehiaketa</i>	“	“	127
<i>basi</i>	X		<i>bilaxkan</i>	IN	<i>basi</i>	23
“	X		<i>dantzan</i>	“	“	69
“	X		<i>lanean</i> (A. Attuli)	IN	“	151
<i>iseatü</i>		X	<i>ezkapatzera</i>	ADL	<i>saiatu</i>	41
<i>jarraiki</i>		X	<i>gazteak</i>	ABS	<i>jarraitu</i>	27
“		X	<i>Pelento</i>	“	“	41
“		X	<i>xedeak</i> (A. Attuli)	ABS	“	83
“	X		<i>haier</i> (A. Attuli)	DAT	“	79
“	X		<i>oraiko moder</i> (A. Attuli)	“	“	81
<i>mintzatü</i>	X		<i>gure artean</i>	<i>artean</i>	<i>mintzatu</i>	87
<i>ohartü</i>	X		<i>beitüe txakurrek...</i>		<i>ohartu</i>	49
<i>so egin</i>		X	<i>ez denez</i>		<i>so egin</i>	45
“		X	<i>bon dütiüenez</i>		“	65
<i>üdüri izan</i>	X		<i>zohardi -la</i>	ABS	<i>iruditu</i>	35

- ***ahatze***: P. Quéheille eta J. Etxebarria: **ediün* (ERG+ABS). Maisterrek al-diz *izan* (ABS+DAT) ere erabilten du.
- ***behatü***: P. Quéheille: **ediün* (ERG+ABS), J. Etxebarria: *izan* (ABS+GEN) eta A. Attuli: *izan* (ABS+DAT). Maisterrek **ediün* (ERG+ABS) eraikuntza ez du sekula erabilten, *izan* (ABS+DAT) eraikuntza beti.
- ***gozatü***: P. Quéheille: **ediün* (ERG+ABS). Eraikuntza horrez gain Mais-terrek *izan* (ABS+INST) dauka.
- ***iseatü***: P. Quéheille: **ediün* (ERG+ADL); Maisterrek *izan* (ABS+ADL) erabilten du.
- ***jarraiki***: P. Quéheille: **ediün* (ERG+ABS), A. Attuli: *izan* (ABS+DAT) eta **ediün* (ERG+ABS) ber kantuan. Maisterrek *izan* (ABS+DAT) erabilten du beti.

BIBLIOGRAFÍA

- BELAPEYRE, Athanase, 1696 (1983), *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure ginco jaunaren eçagutzia, salvatu içateco*, edizio kritikoa, Jean-Louis Davantek paratua, Bilbo, Euskal-tzaindia.
- COYOS, Jean-Baptiste, 2005, «Iragankortasunaren dinamikaz zubereran: kasu adierazpen bi-koitzekiko baliobikoa aditzen ikerketaren lehen etapa», *Fontes Linguae Vasconum*, 100, Iruñea, Navarra, Gobierno de Navarra, 633-660.
- , 2007, «Iragankortasunaren dinamikaz zubereran, bigarren etapa: barneko ekonomia, hizkuntza ukipena eta edo egileari buruzko ikusmolde berri?», *Fontes Linguae Vasconum*, 106, Iruñea, Nafarroa, Gobierno de Navarra, 401-417.
- , 2007, *Xiberotarra Zuberera: le dialecte basque souletin*, Donostia, Elkar.
- EGIATEGI, Jusef, 1785 (1983), *Lehen liburia edo filosofo buskaldunaren ekheiia*, Txomin Peille-nek prestatua, Bilbo, Euskaltzaindia.
- MAISTER, Martin, 1751 (2010), *Jesü Kristen imitazionea*, Jean-Louis Davantek paratua, Bilbo, Euskaltzaindia.
- QUÉHEILLE, Patrick, 2010, *Xahakoa* pastorala, Barkoxe.
- TARTAS, Jean de, 1666 (1975), *Onisa hiltzeko bidea*, Andolin Eguzkitzaren edizioa, Arantzazu, Jakin.

LABURPENA

Iragankortasunaren dinamikaz zubereran: kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzak Maisterren Jesü Kristen imitazionean

Artikulu honetan, Martin Maisterren zubererazko *Jesü Kristen imitazionea* obran (1757) baliobiko aditz batzuen erabilera aztertu da, hain zuen Zuberoan gaur egun kasu adierazpen bikoitzekiko (edo hirukoitzekiko) baliobiko diren aditzak. Liburu horretan autoreak *izan* aditz laguntzailearekiko eraikuntzak nagusiki erabilten dituela ohartu da, gaur egun erabilten den baino gehiago. Maisterren aditz horien erabilera Athanase Belapeyrenari zinez hurbil zaio (*Catechima laburra...*, 1696); Jusef Egiategik **edün* aditz laguntzailea pixka bat gehiago erabilten du (*Lehen liburia...*, 1785).

Martin Maisterren aditz horien erabilera gorabehera batzuk agertarazi da. *Ahatze* (*izan* (absolutibo+dativo) edo **edün* (ergatibo+absolutibo)), *gozatü* (*izan* (absolutibo+instrumental) edo **edün* (ergatibo+absolutibo)), eta *üdüri* (*izan* (absolutibo+instrumental) edo **edün* (ergatibo+absolutibo)) aditzen kasua da.

XXI. mendeko hastepen honetan **edün* (ergatibo+absolutibo) bereziki eta **edün* (ergatibo+dativo) eraikuntzak hedatzen dira, *izan* (absolutibo+dativo) eta *izan* (absolutibo+instrumental) eraikuntzen kaltetan.

Hemen berean hasi zen konparaketa segitzeko (ikus *FLV*, 2005, 100. zbk, 633-660), aurten, 2010ean, emana izan den pastoralaren testua aztertu da, *Xahakoa* pastoralra. Martin Maisterrek *izan* (absolutivo+instrumental) erabili duenean Martin Maisterrek *izan* (absolutivo+instrumental) erabili duenean, Patrick Quéheillek, pastoralaren autore barkoxtarra, **edün* (ergatibo+absolutivo) eraikuntza erabilten du aditz horiekin: *behatü* «entzun», *iseatü* «saiatu», *jarraiki* «jarraitu». *Ahatzékin* Quéheille **edün* (ergatibo+absolutivo) eraikuntzaz bakarrik baliatzen da.

Ildo honetan bi testu horien konparaketak argitaratu den joera orokorra egiaztatzen du, baliobiko aditz zenbaitekin **edün* aditz laguntzailea gero eta gehiago erabilia da zubereran. Azken mendeetan, *izan* aditz horien aditz laguntzailea zen.

Gako hitzak: zuberera, baliobiko aditzak, kasu adierazpen bikoitza, *Jesü Kristen imitazionea*, 1757.

RESUMEN

Sobre la dinámica de la transitividad en el dialecto de Xuberoa: verbos bivalentes con doble marcado casual en la obra Jesü Kristen imitazionea de Maister

En este artículo se examinan algunos verbos bivalentes en la obra, en dialecto vasco soletino, de Martin Maister *Jesü Kristen imitazionea* (1757), más concretamente de los verbos bivalentes que tienen un doble (a veces triple) marcado casual hoy día en Sola. Se observa que en esta obra el autor utiliza principalmente construcciones con el auxiliar verbal *izan* «ser», con más frecuencia que en la actualidad. La construcción de estos verbos en Maister es muy cercana de la de Athanase Belapeyre (*Catechima laburra...*, 1696); Jusef Egiategi utiliza un poco más el auxiliar **edün* «haber» (*Lehen liburia...*, 1785). Se observan algunas fluctuaciones en la construcción de verbos en Martin Maister. Es el caso de *ahatze* «olvidar» (*izan* (absolutivo+dativo) o **edün* (ergativo+absolutivo)), de *gozatü* «apreciarse, gozar» (*izan* (absolutivo+instrumental) o **edün* (ergativo+absolutivo)), y de *üdüri* «asemejar a» (varias construcciones con *izan* o **edün* (ergativo+absolutivo)).

En este comienzo del siglo XXI, la construcción con **edün* (ergativo+absolutivo) sobre todo y la que tiene **edün* (ergativo+dativo) son más frecuentes, en detrimento de la que emplea *izan* (absolutivo+dativo) o *izan* (absolutivo+instrumental).

Para seguir la comparación comenzada aquí mismo (véase *FLV*, 2005, nº 100, 633-660), se examina el texto de la pastoral que se representó este año, en

2010, la pastoral *Xabakoa*. El autor de Barcus, Patrick Quéheille, utiliza la construcción en **edün* (ergativo+absolutivo) cuando Martin Maister utiliza el *izan* con los siguientes verbos: *behatü* «escuchar», *iseatü* «intentar», *jarraiki* «seguir». Con *ahatze* «olvidar», Quéheille sólo utiliza la construcción en **edün* (ergativo+absolutivo).

En este sentido, la comparación confirma la tendencia actual, algunos verbos bivalentes se utilizan cada vez más en dialecto suletino con el auxiliar verbal **edün* «haber». En los últimos siglos el auxiliar de estos verbos era *izan* «ser».

Palabras clave: dialecto suletino, verbos bivalentes, doble marca casual, *Jesü Kristen imitazonea*, 1757.

RÉSUMÉ

Sur la dynamique de la transitivité dans le dialecte de Xuberoa: verbes bivalents à double marquage casuel dans l'œuvre Jesü Kristen imitazonea de Maister

Dans cet article sont examinés certains verbes bivalents dans l'oeuvre en dialecte basque souletin de Martin Maister *Jesü Kristen imitazonea* (1757), plus précisément des verbes bivalents qui ont un double (parfois triple) marquage casuel de nos jours en Soule. On observe que dans cet ouvrage l'auteur utilise principalement des constructions avec l'auxiliaire verbal *izan* «être», plus fréquemment qu'actuellement. La construction de ces verbes chez Maister est très proche de celle d'Athanase Belapeyre (*Catechima laburra...*, 1696); Jusef Egiategi lui utilise un peu plus l'auxiliaire **edün* «avoir» (*Lehen liburia...*, 1785).

Certaines fluctuations dans la construction de verbes sont relevées chez Martin Maister. C'est le cas de *ahatze* «oublier» (*izan* (absolutif+datif) ou **edün* (ergatif+absolutif)), de *gozatü* «apprécier, savourer» (*izan* (absolutif+instrumental) ou **edün* (ergatif+absolutif)), et d'*üdüri* «ressembler à» (plusieurs constructions en *izan* ou **edün* (ergatif+absolutif)).

En ce début de XXI^e siècle, la construction en **edün* (ergatif+absolutif) surtout et celle en **edün* (ergatif+datif) sont plus fréquentes, au détriment de celle en *izan* (absolutif+datif) ou en *izan* (absolutif+instrumental).

Pour continuer la comparaison commencée ici-même (voir *FLV*, 2005, n° 100, 633-660), on examine le texte de la pastorale qui a été donnée cette année, en 2010, la pastorale *Xabakoa*. L'auteur de Barcus, Patrick Quéheille, utilise la construction en **edün* (ergatif+absolutif) quand Martin Maister utilise celle en *izan* avec les verbes suivants: *behatü* «entendre», *iseatü* «essayer», *jarraiki* «suivre». Avec *ahatze* «oublier», Quéheille n'utilise que la construction en **edün* (ergatif+absolutif).

En ce sens, la comparaison confirme la tendance mise à jour, certains verbes bivalents sont de plus en plus utilisés en dialecte souletin avec l'auxiliaire verbal **edün* «avoir». Dans les siècles passés l'auxiliaire de ces verbes était *izan* «être».

Mots clé: dialecte souletin, verbes bivalents, double marquage casuel, *Jesü Kristen imitazonea*, 1757.

ABSTRACT

On the transitivity dynamic in the Zuberoa dialect: bivalent verbs with double casual in Maister's Jesü Kristen imitazonea

In this article certain bivalent verbs are examined in Martin Maister's book written in Basque souletine dialect, *Jesü Kristen imitazonea* (1757), more precisely the bivalent verbs which have nowadays in Soule a double (sometimes triple) casual marking construction. It is observed that in this text the author uses mainly constructions with the verbal auxiliary *izan* «to be», more frequently than currently. The construction of these verbs by Maister is

very close to that of Athanase Belapeyre (*Catechima laburra...*, 1696); Jusef Egiategi uses a little more the auxiliary **edün* «to have» (*Lehen liburia...*, 1785).

Certain fluctuations in the construction of verbs are raised in Martin Maister's text. It is the case of *ahatze* «to forget» (*izan* (absolutive+dative) or **edün* (ergative+absolutive)), *gozatiü* «to appreciate, to enjoy» (*izan* (absolutive+instrumental) or **edün* (ergative+absolutive)), and *üdiüri* «to resemble» (some constructions with *izan* or **edün* (ergative+absolutive)).

At this beginning of 21st century, construction in **edün* (ergative+absolutive) especially and that in **edün* (ergative+dative) are more frequent, to the detriment of that in *izan* (absolutive+dative) or *izan* (absolutive+instrumental).

To continue the started comparison here (see *FLV*, 2005, n° 100, 633-660), one examines the text of the pastoral which was given this year, in 2010, *Xahakoa* pastoral. The author of Barcus, Patrick Quéheille, uses construction in **edün* (ergative+absolutive) when Martin Maister uses that in *izan* with the following verbs: *behatü* «to hear», *iseatü* «to try», *jarraiki* «to follow». With *ahatze* «to forget», Quéheille uses only construction in **edün* (ergative+absolutive).

In this direction, the comparison confirmees the highlighted tendency, certain bivalent verbs are more and more used in souletine dialect with the verbal auxiliary **edün* «to have». In the last centuries the auxiliary of these verbs was *izan* «to be».

Key words: souletine dialect, bivalent verbs, double case marking, *Jesü Kristen imitazonea*, 1757.